



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

## 90. INFORMAZIO BULETINA

2014ko Ekaina



GIPUZKOA



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Ogasun eta Finantza  
Departamentua  
Departamento de  
Hacienda y Finanzas



ETA EUROPAR BATASUNA

> 2014ko Ekaina

## NABARMENDU BEHARREKOA

### > **iSare proiektua EGEFen Jarraipen Batzordearen azken bileran jardunbide egokia bezala aurkeztua izan da**

EAEko 2007-2013 aldirako Programa Operatiboaren Jarraipen Batzordearen zazpigarren bileran, **iSare** proiektua aurkezteko aukera izan zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak. Proiektuaren % 50 Europako EGEF funtsen bidez kofinantzatutakoa da eta helburua Gipuzkoan mikrosare adimendun bat (*smart grid*, ingelesez) sortzea da, sare eraginkorra, iraunkorra eta segurua, hain zuzen, eta sare horrek energia sortzeko eta biltegitratzeko teknologien egoera garatzeko eta esperimentatzeko saiakuntza-banku funtzioa izango du.

Jardunbide egoki izatearen irizpidea hainbat baldintza betetzetik etortzen da eta **iSarek** bete ditu baldintza horiek. Elementu berritzaileak dituzten ekimenak izaten dira eta eskuratutako emaitzak ezarritako helburuetara egokitzen dira. Lagundu egiten dute eskualdeen arazoak edo ahultasunak konpontzen, sinergiak sortzen dituzte esku-hartze publikorako beste politika edo tresna batzuekin batera eta asko zabaldukoak izaten dira inguru geografikoan dituzten herritarren eta enpresen artean. Gainera, aukeraberdintasuna eta ingurumen arloko iraunkortasuna lortzeko printzipio horizontalekin bat datozen ekimenak izaten dira.

**iSare** sarearekin batera, beste bi jardunbide egoki ere aurkeztu zituzten. Batetik, Eusko Jaurlaritzak, komunikazioko jardunbide egoki gisa aurkeztu zuen gazteentzako 'Non ikusten duzu Europa Euskadin?' izeneko argazki lehiaketa. Lehiaketaren helburua EGEF funtsaren bidez finantzatutako ekimenak Euskadin ezagutaraztea da. Bestetik, Bizkaiko Foru Aldundiak 'Zeharkako komunikazioa erabiltzea' proiektua aurkeztu zuen. Europako jarduerak eta babesak Bizkaira ekarri dituen proiektua da.

*Informazio gehiago:*

<http://www4.gipuzkoa.net/ogasuna/fondoseur1/uploads/noticias/2014-05%20Jardunbide%20egokia%20iSare.pdf>



### > Euskal Eurohiriak Batzar Nagusia egin du eta Plan Estrategiko bat prestatzen ari dela iragarri du

Irungo Ficoba erakustazokan izan da Baiona-Donostia Euskal Eurohiriaren Batzar Nagusia eta Eurohiria osatzen duten erakundeetako ordezkariak 2013ko ekitaldiko kontuak eta Eurohiriaren 2014rako aurrekontua onartu dituzte.

Batzar Nagusian aurkeztu dituzte, halaber, datorren urterako bi proiektu garrantzitsu. Euskal Eurohiriaren Sare Berdea eta Urdina proiektua (REDVERT) da bat. Orain dela gutxi hautatu du Lurraldearen arteko Lankidetzarako Europako Programak (POCTEFA) eta helburua Euskal Eurohiriko lurraldearen sare berdea eta urdina identifikatzea eta kartografiatzea du, kide diren taldeek antolamendu-planetan biodibertsitatearen kontserbazioa kontuan har dezaten.

Batzar Nagusiak aurkeztutako bigarren ekimena Euskal Eurohiriaren Plan Estrategiko Operatiboa da. Plan horrek zehaztuko ditu 2020ra arteko erronkak. Planaren helburuak hauek dira: Euskal Eurohiriaren proiektuari bultzada emateko hausnarketa estrategikoa egitea, Europako metropoli gisa duen garapen- eta integrazio-ahalmena aztertzea eta Europaren 2014-2020 finantzaketa-aldi berriratzeko proiektuak elkarrekin proposatzea.

*Informazio gehiago:*

<http://www.eurohiria.org/>



### > Akitania-Euskadi proiektuen deialdi berria martxan da

Akitania-Euskadi Euroeskualdea AECTk bi eskualdeen arteko lankidetzarako proiektuen deialdi berria argitaratu du. 300.000 euroko aurrekontua du eta 5 lehentasun ardatz hartuta lankidetzaproiektuak aurkezteko deialdia da: kultura, hezkuntza, eleaniztasuna, kirola eta gazteria dira ardatz horiek.

Euroeskualdeko 2014-2020 aldirako Plan Estrategikoa prestatze-prozesuan dago eta herritarren, eleaniztasunaren eta mugikortasunaren arloetan lankidetzaproiektuak garatzearen garrantzia nabarmentzen du. Bestalde, Donostia 2016an Kultura Hiriburua izango dela aintzat hartuta, kultura arloan dauden dinamikak sendotzeko aukera da. Horregatik emango die deialdi honek laguntza aipatu ditugun 5 lehentasunen inguruko lankidetzaproiektuei.

Akitania-Euskadi laguntzen deialdia eragile sozio-ekonomikoen arteko lankidetzak sustatzeko da, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Akitania eskualdeko kideek, elkarrekin, proiektuak gauza ditzaten.

Proiektuak aurkezteko epea 2014ko uztailaren 16an amaituko da.

*Informazio gehiago:*

<http://www.aquitaine-euskadi.eu/>



## KOHESIO-POLITIKA

### > Europako Gizarte Funtsaren Euskadiko Jarraipen Batzordeak bilera egin du

Maiatzaren 19an egin zuen Bilbon bilera Europako Gizarte Funtsaren (EGIF) Euskadi 2007-2013 Programa Operatiboaren Jarraipen Batzordeak.

2013ko urteko gauzatze-txostena onartu zuten bileran. Txosten horrek aztertzen du une honetako Programa Operatiboaren kudeaketa eta bilakaera eta Programa Operatiboa N+2 Araua betetzeari dagokionez zertan den. Honako gai hauek ere jorratu zituen Batzordeak: Programa Operatiboa edo komunikazio-planaren eragiketak, aplikazioa eta jarraipena hautatzeko irizpideak aldatzeko proposamenak eta ebaluazioari eta jarraipen estrategikoari lotutako gaiak.

Jarraipen Batzordeak, amaitzeko, Bilbao Ekintzaren “Enpresak sortzeko eta sendotzeko laguntza” proiektura bisita egin zuen.

*Informazio gehiago:*

[http://www.lanbide.net/plsql/eu\\_fondo?idioma=E](http://www.lanbide.net/plsql/eu_fondo?idioma=E)



### > Zabalik da 2014-2020rako Espazio Atlantikoko Programa Operatiboaren etorkizunari buruzko kontsulta publikoa

Programa Operatiboaren kontsulta publikoetarako baldintzak ezartzen dituen 2001/42/EC Direktiba betez, kontsulta publiko bat argitaratu da etorkizuneko Espazio Atlantikoko Programa Operatiboaren zirriborroarekin, 2014-2020 programazio-aldi berriaren harira.

Kontsultagai jarri den Espazio Atlantikoko Programa Operatiboa 2014-2020 Espazio Atlantikoko Programa prestatzeko Lan Taldeak egindako lanaren emaitza da. Lantalde hori Frantziako, Irlandako, Portugalgo, Espainiako eta Erresuma Batuko ordezkariak, Kudeaketa Agintaritzak eta Baterako Idazkaritza Teknikoak osatzen dute.

Kontsulta publikoa Espazio Atlantikoan parte hartzen duten eragile eta onuradun potentzial ugarietako zabalik eta helburua zera da, Lan Taldeak Programan zehaztutako estrategiaren egokitasuna, lehenetsuneko ardatzak eta identifikatutako erronkei eta beharrei erantzuteko helburu espezifikoak ziurtatzea.

*Informazio gehiago:*

<http://atlanticarea.ccdr-n.pt/>



### > Laneko osasunari eta segurtasunari buruzko Europako testuinguru estrategikoa

Europako Batzordeak 2014-2020 aldirako testuinguru estrategiko berria aurkeztu du laneko osasunari eta segurtasunari lotuta. Testuinguru estrategiko horrek finkatzen ditu gai horretako erronka eta helburu estrategiko nagusiak eta horiek lortzeko ekintzak eta tresnak.

Onartutako testuinguru estrategikoak bere gain hartutako hiru erronka handiak hauek dira: laneko osasun eta segurtasun arloan indarrean diren arauen aplikazioa hobetzea, laneko gaixotasunen prebentzioa hobetzea eta Europar Batasuneko langileak, eskulana, zahartzen ari direla aintzat hartzea.

Testuinguru berri honetan helburuak lortzeko aurreikusitako tresnez gain, Europar Batasuneko hainbat funts ere baliatu daitezke osasunari eta segurtasunari buruzko arauak aplikatzen laguntzeko. Horien artean dira Enplegu eta Gizarte Berrikuntzarako Europako Programa (EaSI) eta Europako Gizarte Funtza (EGIF).

*Informazio gehiago:*

<http://ec.europa.eu/social/BlobServlet?docId=11828&langId=en>



## EUROPA 2020 ESTRATEGIA

### > Euskal I+G+b Europan, Koaderno Estrategikoa delakoak Euskadiren posizioa ezarri du Horizon 2020 programaren erronken aurrean

Eusko Jaurlaritzak "Euskal I+G+b Europan, Koaderno Estrategikoa" aurkeztu du. Tresna berri horren bidez zehaztuko da Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren Euskal Sistema nazioartekotzeko estrategia, Europako Horizon 2020 testuinguru-programa berrian parte hartzeko helburuak proposatuz eta horiek lortzeko enpresei eta eragileei laguntza-zerbitzuak eskainiz.

Horizon 2020 programa berria abiaraztearen harira, Eusko Jaurlaritzak beharrezkotzat jo du Koaderno Estrategiko berria egitea eta nazioarteko lankidetzarako testuinguru honek Euskadiri eskaintzen dizkion aukeretara egokitzea. Dugun egoera ekonomikoa ikusita, garrantzi berezia du kanpoko finantzaketa eskuratzeak, hori baita enpresetara berrikuntza ekartzea zailtzen duten faktoreetako bat.

Hala, honako hauek dira "Euskal I+G+b Europan, Koaderno Estrategikoa"ren helburuak:

- Horizon 2020 programaren ardatz guztietan euskal partaidetza areagotzen jarraitzea eta VII. Testuinguru-programaren emaitzetan % 52 haztea Zientzia Bikainean, % 49 Industria-lidergoan eta % 108 Gizarte-erronketan.
- Datozen 7 urteetan I+G+b arloko Europako 2.100 proiektutan parte hartzea eta 805 milioi euroko finantzaketa lortzea, aurreko programan lortutakoaren ia bikoitza lortzea, alegia.
- Enpresen partaidetza indartzea, batez ere enpresa txiki eta ertainena, aurrekontuaren % 20k enpresa txiki eta ertainentzat izan behar duela dioen Europako helburuaren harira.
- Espezializazio Adimendunaren gure Estrategia indartzeko ikerketa garatzea, ezarrita ditugun lehentasun estrategikoei lotuen dauden Europako arloetan parte hartzearen aldeko apustua eginez.

*Informazio gehiago:*

<http://www.innobasque.com/Modulos/DocumentosVisor.aspx?docId=2019&js=1>





### > Euskadi Europa 2020 Estrategiaren helburuei begira

Eustatek argitaratutako azken datuen arabera, Europa 2020 Estrategiaren bederatzi adierazleetatik bostetan dago Euskadi Europar Batasuna 28ren mailaren gainetik. Gainera, adierazle batzuetan, hezkuntzari lotutakoetan batez ere, 2020rako ezarritako helburua lortu dugu; honako hauetan, hain zuzen: I+Geko barneko gastuan, lehen mailako energiaren kontsumoan, eskola uzte goiztiarraren tasan, goi mailako hezkuntzaren mailan eta pobrezia edo bazterketa jasateko herritarren arloan.

Lana izatearekin eta pobreziarekin lotutako adierazleetan, aldiz, Euskadik atzera egin du 2009ko abiapuntuko egoeratik. Berotegi efektuko gasen isuriak, energia berriztagarrien kuota eta energiaren amaierako kontsumoa ere Europako batez bestekoaren azpitik ditugu.

Europako Kontseiluak 2010ean onartutako Europa 2020 Estrategia da hamarkada honetarako denon agenda. Lehenetsuna ematen die hazkunde adimendun, iraunkor eta integratzaileari Europako ekonomiaren egituraren ahultasunak gainditzeko, lehiakortasuna eta produktibitatea hobetzeko eta merkatu-ekonomia sozial eta iraunkorra sendotzeko bidean.

*Informazio gehiago:*

[http://eu.eustat.es/ci\\_ci/elementos/ele0011700/not0011718\\_e.htm#axzz36CetPmah](http://eu.eustat.es/ci_ci/elementos/ele0011700/not0011718_e.htm#axzz36CetPmah)



### > **Batzordeak estatu-kideei suspertze ekonomikoa sendotzeko emandako gomendio berriak**

Ekainaren hasieran, Europako Batzordeak politika ekonomikoari lotutako gomendio sorta bat prestatu zuen estatu-kide bakoitzarentzat, iaz abiarazitako suspertzea indartzeko.

Gomendio horiek herrialde bakoitzeko egoera aztertze eginiko azterketa sakonetan oinarrituta daude eta jarraibideak ematen dituzte 2014-2015 aldian hazkunde ekonomikoa sustatzeko, lehiakortasuna handitzeko eta lanpostuak sortzeko.

Nolanahi ere, honako hauek dira estatu-kide guztientzako gomendio nagusiak:

- Langabezia, berdintasun-falta eta pobrezia tasa altuen aurkako borroka indartzea.
- Enpleguari mesede handiagoa egingo dion zerga-sistema.
- Finantzabide alternatiboak babestuz inbertsio pribatua sustatzea, batez ere enpresa txiki eta ertainentzako; esate baterako, kreditua bermatzeko sistemak edo enpresa-bonuak emanez.
- Ekonomien lehiakortasuna handitzea. gomendioek hainbat erreforma egitea eskatzen dute zerbitzuen sektorean, energiaren eta garraioen azpiegiturretan, I+G sistemetan eta lehiari buruzko legerian.
- Zorra murriztea, batez ere Belgikan, Irlandan, Grezian, Espainian, Italian, Zipren eta Portugalen.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/europe2020/making-it-happen/country-specific-recommendations/index\\_en.htm](http://ec.europa.eu/europe2020/making-it-happen/country-specific-recommendations/index_en.htm)



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Ogasun eta Finantza  
Departamentua  
Departamento de  
Hacienda y Finanzas



ETA EUROPAR BATASUNA

> 2014ko Ekaina

## DOKUMENTU INTERESGARRIAK

### > Europa berri baterako eztabaidak. Herritarren gogoetak aldaketari begira (EUROBASK)

Europako Mugimenduaren Euskal Kontseiluak (EUROBASK) "Europa berri baterako eztabaidak. Herritarren gogoetak aldaketari begira" hitzaldi-zikloaren hiru saioetan parte hartu duten hizlarien esku-hartzeak argitaratu ditu. Bilbon, Donostian eta Gasteizen izan ziren saioak, urtarrilean eta otsailean.

EUROBASKek, urtero, Europaren mezua euskal gizarte osoan hedatzeko eta Europaren eztabaidan tokirik aktiboenetako bat Euskadi bihurtzeko antolatzen dituen ekimenetako bat da hori.

*Informazio gehiago:*

[http://eurobask.org/ficherosFTP/LIBROS/HAUTESKUNDEAKELECCIONES\\_2014.pdf](http://eurobask.org/ficherosFTP/LIBROS/HAUTESKUNDEAKELECCIONES_2014.pdf)

### > Europa Helmuga Gida (Gazteriaren Euskal Behatokia)

Gazteriaren Euskal Behatokiak argitaratutako Europa Helmuga Gidaren hirugarren edizioa, Europan ikasteko, lan egiteko edo bidaiatzeko irtenbideak eta informazioa eskaintzen dituena.

Mila webgune baino gehiagoren estekak dituen direktorio handi bat da argitalpen hau eta webgune horietan Europarako mugikortasuna prestatzeko laguntza eskaintzen da; adibidez, hizkuntzak ikasteko, praktikak egiteko, prestakuntza jasotzeko, oposizioak egiteko, lana bilatzeko, bekak eskatzeko, gazteen truke batean parte hartzeko edo turismoa egiteko. EBko herrialderen batera joatea pentsatzen ari den edozein gaztek izan ditzakeen galderetatik abiatuta, gidak baliabideak eskaintzen ditu eta kanpo-esteka fidagarriak eta seguruak eskaintzen ditu informazio gehiago eskuratzeko.

*Informazio gehiago:*

<http://www.gazteaukera.euskadi.net/albistea/2014/europa-helmuga-gida-2014/r58-7657/eu/>



### > Egitura Funtsak kudeatzeaz arduratzen diren langileen kostuei buruzko azterlana (Europako Batzordea)

Estatu-kideek Europar Batasuneko Egitura Funtzen kudeaketan aritzen diren langileen kostuak kofinantzatzeko Laguntza Teknikoa 2007-2014 programazio-aldian nola erabili duten aztertzeko azterlana.

Txostenak erakusten du estatu-kide guztiek dagokien helbururako erabiltzen dituztela Laguntza Teknikorako aurrekontuak, baina horretan aritzen den langile kopurua aldakorra da herrialde batetik bestera. Batasuneko 28 estatu-kideetan, 24.000 pertsona aritzen dira guztira Eskualde Garapenerako Europako Funtsa eta Kohesio Funtsa aplikatzeko lanetan eta pertsona bakoitzak, batez beste, 11 milioi euro inguru kudeatzen ditu finantzaketan.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/regional\\_policy/sources/docgener/studies/pdf/financing\\_salaries/financing\\_salaries\\_study.pdf](http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/studies/pdf/financing_salaries/financing_salaries_study.pdf)

[http://ec.europa.eu/regional\\_policy/sources/docgener/studies/pdf/financing\\_salaries/financing\\_salaries\\_study\\_infographic.pdf](http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/studies/pdf/financing_salaries/financing_salaries_study_infographic.pdf)